

IRITZIA

iritzia@deia.com

Behatokia

Euskararen Legeak hogeita hamar urte

URTE hurrenez urte hurren gabiltza azken boladan. 30 urte Euskadi Irratia sortu zela, 30 urte Euskararen Legea onartu zela, urtearen amaieran 30 urte izango dira ETB sortu zela... Eta ingurumari honetan, gaur ari gara ospatzen Euskararen Nazioarteko Eguna, eta aste honetan bertan irekiko ditu ateak Durangon 47. edizioa izango duen Euskal Liburu eta Diskaren azokak. Urte asko dira hogeita hamar urte, edo ez, nola ikusten den. Egia da asko aldatu dela gizartea urte hauetan. ETB sortu zenean, gaztelaniazko bi kate publiko bako bako ez zituen ondoan, haiekin lehiatu behar zuen; ondoren etorri ziren kate pribatuak, eta geroago kable bidezko telebista. Zer esanik ez IKTEk ekarri duten iraultza oraindik ere gutxi du dutena. Alde horretatik zerbait erabakirik du orain dela hogeita hamar urteko inguruneak eta gaurkoak, ETBri dagokionez. Helburu nagusi euskara sustatzea zuela kontuan hartuta, berriz, beste horrenbeste esango genuke. Alde ederra 1982ko eta gaurko egoeraren artean, euskararen ezagutzari dagokionez, behintzat. Hori guztia kontuan hartuta, ez da harritzekoa asko izatea ETBri buruzko gogoeta sakona eskatzen dutenak. Baina, zer esan, gaur lerro hauek idazteko aukeratu dudana gaur, Euskararen Legeaz? Gauza asko esan eta idatz daitezke, ez da horretan zalantzarik. Nork idazten duen, ikuspegi bat edo beste, iritzi bat edo beste erabakirik du. Gauza bat dago argi, honetan, beste hamaika kontutan bezalaxe, hamaika pentsamolde eta ikusamolde aurkituko ditugula gure artean.

Dena dela, egun hauetan idatzi eta esanda koetan guztiak datoz bat aitortzean emanorra izan dela Euskararen Legea, aurrera egiten lagundu diola euskarari. Baina, hortik aurrera, bateko eta beste iritziak ikusiko ditugu. Batzuen ustez, gehiagi estutu da euskara-kontuetan, azkarregi joan gara, urrunegi. Ezin da ezer inposatu, legez ezarri; beharrezkoak ez dio onik egingo euskarari. Hala uste dute azken urteetan Eusko Jaur-larritan egon direnek: azkarregi gabiltza osakidetzan, ezin da ezer legez behartu merkataritzaren munduan... Borondatearen mende geratzen da euskarak aurrera egin ala ez.

Beste batzuek, oster, justu kontrakoa defendatzen dute. Euskaraz bizi nahi duenak zailtasunak ditu oraindik ere euskaraz bizitzeko, euskaldunen hizkuntza-erabilerak ez daude oraindik ere bermatuak. Legea berri-kusteko garaia omen da.

Zer esan hain iritzi kontrajarrien aurrean?



Ezin dugu albo batera utzi euskarazko hiztun berriak irabazteko ahalegina. Baina gero, ikasitakoa erabiltzeko baliabideak jarri behar ditugu; bai lanean eta, batez ere, kalean, lagunartean, haur eta gazteen kasuan

POR MIREN AZKARATE (*)

Hiruzpalau baieztapen egin nahi ditut urte hurren honen harira. Batetik, aipatu berri ditudan iritziak argi asko erakusten duten bezala, gaur ere, Legea onartu zenean gertatzen zen moduan, iritzi bat baino gehiago dagoela gizartean. Jabetuta zuden horretaz, oso, Legea landu eta onartu zutenak, Pedro Miguel Etxenike, garai hartako Hezkuntza Sailburuak, 2012ko uztailean 25ean Carlton hotelean eginiko hitzaldian esan zuenez. Eta hizkuntza-politikak, arrakasta izango badu, gizartearen oniritzia eta atxikimendua behar du. Beraz, gehiengo zabal baten onspena beharko du hemendik aurrera egingo denak ere.

Bigarrenik, askori eztabaida ezina iruditzen zaigu hemen zailtasunak dituenak, esku-bideak urratzen zaizkiona, euskaraz bizi nahi duen biztanlea dela. Beste batzuek, ordea, funtzio publikoko lanpostu batera aukeratu nahi eta dagokion hizkuntza-eskakizuna baieztatu ezin duena hartzen dute gogoan. Horri urratzen omen zaizkio esku-bideak, eta ixten ateak lanpostu jakin batean jardun ahal izateko. Ez dute aintzakitatzat hartzen lanpostu publikoak zer esan nahi duen, gizartearen zerbitzura egotea, hizkuntza batean edo bestean bizi nahi duen herritarren zerbitzura, alegia. Baina gure artean bizi dira pentsamolde horretakoak ere, gizartearen zati dira.

Hirugarrenik, ukalezina da, nik uste, herri-administrazioak ezinezko dabilzala oraindik ere Legeak ezartzen duena bermatzeko: ez dira gai askotan herritarrekin harreman euskaraz izateko. Askok aurreratu da horretan ere, hori ere hala aitortu behar da, baina oraindik bide luzea dugu egiteko. Eta hori ikusirik, herritarren hizkuntza-erabilerak urratzen direnean, zigorra aurreikusiko duen legea eskatzen dute batzuek; alegia, euskaraz bizitzeko eskubidea bermatuko duen marko juridiko eraginkor bat.

Laugarrenik, euskaraz bizi nahi duenarentzat mugak ez dizkie herri-administrazioek bakarrik ezartzen. Euskaraz ez daki-

ten gizon-emakumeekin ezingo dugu euskaraz jardun. Beharrezkoa dugu, beraz, euskararen ezagutzan aurrera egiten jarraitzea, euskaldun berriak irabazten segitzea. Herena baino zerbait gehiago gara elebidun Euskal Autonomia Erkidegoan; badugu oraindik zeregina.

Baina gaur badugu beste mota bateko arazoa ere, eta alferrik itxiko ditugu begiak horren aurrean: gaurko gazteek, askok eta askok, badakite euskara; baina, zein hizkuntza aukeratzen dute hitz egiterakoan, euskara ala gaztelania? Zer da, ordea, jakitea? Gazteei galdetzen badiegu, batek baino gehiagok onartuko du mugak, zailtasunak dituela eremu informalean euskara erabiltzeko; baliabideak falta zaizkio, erregistro egokia eroso jarduteko. Eskolan, baita unibertsitatean ere, moldatuko dira gaiak euskaraz ikasteko. Kalean, hankamotz, mingain-motz sentituko dira haur eta gazteen arteko harremanetarako. Zenbaitzuen iritziak, euskara frikia da; balorazio horrek berak asko adierazten du. Ez ziguten alferrik esan 1991n Mikel Zalbidetik eta beste hainbat lagunek Eskola hiztun bila zebilela; azken hamabost urte hauetan, gazteen erabileran zer faktorek eragiten duten aztertuko.

Ez dira, baina, eskolan euskaraz ikasi duten haur eta gazteak bakarrik. Umetan etxean ikasitako zenbat heldu ez ote dugu entzuten euren artean lasai asko gaztelaniaz? Gero umeei bizpahiru hitz esango dizkiete euskaraz, berritako gaztelaniara itzultzeko. Jabetuta bagina nolako eragina duen eredu horrek!

Eta honetan ezer gutxi egin dezakete lege

Gaurko gazteek, askok eta askok, badakite euskara; baina, zein hizkuntza aukeratzen dute hitz egiterakoan, euskara ala gaztelania? Zer da, ordea, jakitea?

eta dekretuek. Garai batean euskararen aldeko militantzia zen; orain ez dakit zer beharko dugun, baina argi dago zerbait behar dugula hizkuntza eta gure nortasuna lotuko dituen. Bestela, gerta dakiguke Patxi Baztarrikak Babeli gorazarre liburuan dioena, euskara gero eta gehiagoren bigarren hizkuntza izatea, alegia, baina gero eta gutxiagoren lehen hizkuntza. Horregatik entzuten da horrenbestetan azken urteetan erabilerak dela etorkizuneko erronka. Ezin dugu albo batera utzi hiztun berriak irabazteko ahalegina. Baina gero, ikasitakoa erabiltzeko baliabideak jarri behar ditugu; bai lanean eta, batez ere, kalean, lagunartean, haur eta gazteen kasuan. Horiexek dira Soziolinguistika Klusterreko aurreikuspenak ere: nekez elgisterreko erabilerak hiztun kopuruak gora egiten ez badu, edo (nik eta esango nuke) harremanak euskaraz izateko aukerak handitzen ez badira.

Horregatik dira hain garrantzitsuak euskaraz egiten ikasi ondoren, bikote elebidun izatea eta haurrei euskara transmititzea erabakitzen duten gurasoen jarrerak. Hor lortzen da katea eten, eta belaunaldi batentzat bigarren hizkuntza izan dena, lehen hizkuntza izatea hurrengo belaunaldiarentzat. Eta hori hil edo bizikoa izan daiteke hizkuntza gutxituentzat. Horrekin batera, ezinbestekoak zaizkigu haur eta gazteei aisialdian euskaraz jarduteko aukera eman-goto dieten jarduerak, Euskaltzaindiaren eta eskolako euskara-eredua hautsiz, lagunartean eroso mintzatzeko moldeak eskainiko dizkietenak.

Orain dela hogeita hamar urte elebidunak irabazi eta euskara, batez ere, irakaskuntzara hedatzea zen erronka. Elebidunak irabazten jarraitu behar dugu. Euskaraz bizi ahal izatea bermatzen jarraitu behar dute herri-administrazioek. Baina, orduan ez bezala, eta zorionez, erronka berriak ere baditugu, neurri handi batean, gutako bakoitzaren esku daudenak: euskaraz bizitzeko ditugun aukera guztiak baliatu, euskaraz hitz egin...

Milaka herritar ikusi ditugu kalean "Euskaraz bizi nahi dut" lelopean. Egitekoak egiteko, dagoeneko geure ditugun aukerak baliatu, gure osoa egin dezagun Euskararen Nazioarteko Eguna. Eta euskaraz bizitze horretan, euskal kulturaren kontsumoa ere sar dezagun; Durango zain izango dugu, ateak zabalik.

* Donostiako Udaltzainguko zinegotzia, Euskal Filologian doktore, EHU irakasle eta euskaltzain osoa 1992tik

Puente Diciembre

5 al 9 Diciembre

PIRINEOS		Alpes	
Pas de la Casa	desde 215 €	Precios desde	5-9/12 1-8/12
Cauterets	desde 235 €	Tignes	185 € 269 €
Saint Lary	desde 219 €	Val d'Isere	218 € 295 €
La Mongie	desde 229 €	Alpe D'Huez	159 € 239 €
Peyreagudes	desde 215 €	Peyreagudes	239 € 289 €

Incluye en Pirineos Alojamiento en Studio o apartamento 4 noches + 4 días de Forfait
Alpes 1-8 diciembre 7 noches alojamiento + 6 días forfait

ikea
Henao 33 - 48009 Bilbao - 94 4230657
Esperanza 26 - 48005 Bilbao - 94 4792020
Lehendakari Aguirre 31 - 48970 Basauri - 94 4260009

5 al 9 Diciembre

ROMA desde 584 €

PRAGA desde 568 €

BERLIN desde 678 €

LONDRES desde 594 €

Los precios incluyen:
- Avión directo desde Bilbao. Salida día 5 excepto Londres día 6
- Estancia en Hotel y régimen indicado según programa.
- Tasas aeroportuarias.
- Seguros de viaje.